

URTEAN ZEHARREKO 22. DOMEKEA - A

Sarrerako oharra

Anai-arrebok: Jaunaren Hitzak adierazoko deuskuez, bokazinoari, jasotako misinoari leial erantzutearen ondorioz, sufrimentua eta kurutzea jasan daikeguz. Baina argi eta garbi esan behar dogu sufrimentua ez dala Jaungoikoaren gustuko; Berak atsegin dauana jarraitzea merezi dauan bere Seme maiteaganako leialtasunetik sortzen diran kurutzeak nork bere egiteko jarrerea da.

Eskatu deiogun Jaunari bere mezua sakontasunez ulertzeko doea.

Zutunik, abestuz ekingo deutsagu ospakizunari.

Sarrerako abestia

Abadearen agurra

Bere poztasun eta bakeaz beteten gaituan itxaropenaren Jaungoikoa, zuekin.

Damu otoitza

Jaungoikoak gure bizitzan ona, bikaina, atsegina... bilatzeko dinosku; parkamena eskatuko dogu txarto egiten dogunagaitik, alkarrengandik eta Aitagandik aldentzen gaituanagaitik.

— Gizadiaren salbamena kurutzean jarri dozu. Erruki, Jauna.

- Gugaitik oinazeak jasan zenduzan, zure atzetik joan gaitez. Kristo, erruki.

- Kurutzean, gure pekatuak zure gain hartu zenduzan gu, pekatu barik, zuzentasunean bizi gaitez. Erruki, Jauna.

Oharra irakurgaiei

Lehenengo irakurgaietan, Jeremias profetak, bihotzetik sortzen jakon kantu ederragaz, bere barrua husten dau Jaungoikoaren aurrean, bokazinoak disgustuak eta jazarpenak ekarri deutzazalako.

Baina jainko hitzaren su biziak Jaungoikoaren mezulari izatera behartzen dau. Jazarpenak jazarpen, ezin da isilik geratu.

Bigarren irakurgai, Paulo apostoluak dei egiten deutso Erromako alkarteari Jaungoikoaren graziak dakarren aldaketa onartuz eta, holan, Aitarentzat gustuko dan erreopari bizi bihurtuz bizi daiten.

Izan be, espirituan eta egian gurtzea, Jaunari bizitzako une guztiak eskaintzean eta jainko borondatearen arabera bizitzean datza.

Jaungoikoaren herriaren otoitza

Beti behar dogu Jaungoiko Aitaren laguntza. Konfiantzaz beteta goaz orain Beragana, gure beharrianak aurkeztera.

- 1.- Eleizaren alde; Maisuaren bizimoduaren isla izan eta Jesusen mezuaganako leialtasunean bizi daitela. Eskatu deiogun Jaunari.
- 2.- Agintarien alde; mundu zuzen eta hobe egiteko bidea aurkitu daiela. Eskatu deiogun Jaunari.
- 3.- Bidaian dagozanen alde; zuhurtziaz jokatu daiela eta euren helmugetara heldu daitezala. Eskatu deiogun Jaunari.
- 4.- Gaixo, baztertu eta ahaztuen alde; Jaunaren laguntzaz, maitasun eta baretik bizi daiela euren oinazea eta gure aldetik alkartasun sakon eta konprometitu eskaini deiegula. Eskatu deiogun Jaunari.
- 5.- Gu guztion alde; Maisuaren atzetik, bere bideetan zehar ibiliz goazan ikasle lez bizi gaitzala. Eskatu deiogun Jaunari.

Entzun, Aita, gure otoitza; zure Seme Jesukristoren jarraitzaile izan gaitzala bere nekaldian, bere berbizkundera jadetsi ahal izateko. Errege bizi da-eta gizaldi eta gizaldietan.

Abadearen agurra (bedeinkapenaren ostean)

Jesusen berbak gaur-gaurkoak eta Barri Ona dira guretzat: *“Nire atzetik etorri gura dauanak, bere buruari uko egin deiola, kurutzear hartu eta jarraitu deidala”.*

Zoaze Jaunaren bakean!

Egun honetarako gogoeta

Jaunaren Hitzak pertsonaia bi aurkeztu deuskuz: Jeremias eta Pedro.

JEREMIAS: hauxe esateko gai da: *“Liluratu egin ninduzun, Jauna, eta nik liluratzen itzi”*. Gogoeta sakon bat dago hemen, maitasunez betea, barrutik aldatzeko prest dagoanarena. Jaungoikoak ‘harrapatuta’ dago. Bere bizitza markatzen dauan esperientzia sakona bizi dau.

PEDRO: joan zan domekan Jesusek goratu eta adibide lez ipini euskun emondako eran-tzun ederragaitik; gaur Jesusen ahotik berba gogorak entzun behar izan ditu: *“Kendu zaitez nire aurretik, Satanas! Oztopo zara niretzat; zure gogoetak ez dira Jaungoikoarenak, gizakiarenak baino”*. Pedrok be Jesusen esperientziagaz bat egiteko oraindik bide luzea dauka aurretik; esperientzia horrek ikutu eta aldatzen dau persona. Pedrok be egingo dau, eta bidean dago. “Jakitea” ez da nahikoa, bizi izan behar da.

Eta... GU? Jesusek gure barrua eraldatu dagian eta Bera nor dan jakiteko, Bera ezagutzeko, jarraitu egin behar deusagu. “Irudi” ederrak izan arren ez da nahikoa. Geure barruan ezagutu beharra dogu.